

ZER DIRA “ESKOLA SOLIDARIOAK”?

Eskola Solidarioak izeneko programak nafar irakasleak Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailean aholkatu eta prestatzen ditu (ETCG).

ETCG gizarte eta hezkuntza arloko prozesu etengabea da, Herritartasun Global kritikoa eta arduratsua sustatzeko, eta konprometitu, bai maila pertsonalean, bai maila kolektiboan, tokiko eta munduko egoera eraldatzearekin, betiere mundu bidezkoa eta ekitatiboa eraikitze aldera, dibertsitatea eta ingurumena errespetatuko dituen, pertsona guztiok askatasunean eta behar bezala garatzeko modukoa.

Eskola Solidarioak programan Nafarroako unibertsitate aurreko ikastetxe guztiek parte har dezakete.

Bereziki garrantzitsua da Nafarroan UNESCOk herritartasun mundial edo global baterako hezkuntza esaten dion hezkuntza sustatu nahi izatea, betiere bat eginik nafar lankidetzak Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen arloan egin izan duenarekin. Helburu horrek lotura estua dauka 4. Garapen Jasangarriko Helburuaren 4.7 helmugarekin, hots, “ziurtatu behar da ikasleek behar diren ezagutza teoriko eta praktikoko guztiak eskuratzea garapen jasangarria sustatzeko; besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren bidez, giza eskubideen bidez, genero-berdintasunaren bidez, bake eta ez-indarkeriaren kultura sustatuz, herritartasun globalaren bidez, kultur dibertsitatea baloratuz, eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion onura baliatuz”.

Aintzat hartu behar dira bai metodologia bai hezkuntza-berrikuntza, ETCG eraginkorragoa eta efikazagoa izan dadin bere eginkizunean:

Esparru teorikoa Garapen Jasangarriko Helburuak dira:

- [1. Helburua: Pobreziaren amaiera](#)
- [2. Helburua: Gosea eta elikagai-segurtasuna](#)
- [3. Helburua: Osasuna](#)
- [4. Helburua: Hezkuntza](#)
- [5. Helburua: Genero berdintasuna eta emakumea ahalduntzea](#)
- [6. Helburua: Ura eta saneamendua](#)
- [7. Helburua: Energia](#)

- [8. Helburua: Hazkunde ekonomikoa](#)
- [9. Helburua: Azpiegitura](#)
- [10. Helburua: Herrialdeen arteko eta barneko desberdintasunak murriztea](#)
- [11. Helburua: Hiriak](#)
- [12. Helburua: Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak](#)
- [13. Helburua: Klima Aldaketa](#)
- [14. Helburua: Ozeanoak](#)
- [15. Helburua: Oihanak, basamortutzea eta dibertsitate biologikoa](#)
- [16. Helburua: Bakea eta justizia](#)
- [17. Helburua: Aliantzak](#)

EZAUGARRIAK

Programak hiru zutabe ditu oinarri:

A) Koordinazioa eta praktikan jartzea

Eskola Solidarioak Nafarroako unibertsitate aurreko ikastetxeetako irakasleak ETCGn prestatzeko programa da, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Nafarroako GGKEen Koordinakundeak eta GGKE horiek antolatuta.

- **Hezkuntza Departamentuak** irakasleak prestatzeko planak egiten ditu, barne direla bai garapenaren aldeko lankidetzari buruzko proposamenak, bai elkartasuna sustatzeko proposamenak. Izena eman duten irakasleei ziurtapena ematen die bai prestakuntza-orduetan, bai berrikuntza-orduetan, Eskola Solidarioak programan eginiko lanagatik. Izena emateko bi modu daude: Berrikuntzarako deialdia eta Prestakuntzarako Deialdia.
- **Politika Sozialetako Departamentua** sail eskuduna da Garapenaren Aldeko Lankidetzan, gure Foru Komunitatean. GGKEen ETCG ekintzak finantzatu eta sustatzen ditu, eta finantzaketa horren gainbegiralea eta aztertzailea da, bai eta programaren hedatzailea ere. Gainerako eragileekin egiten diren koordinazio eta jarraipen bileretan parte hartzen du.
- **Nafarroako GGKEen Koordinakundea** hirugarren eragile antolatzailea da. Ikastetxeetako irakasleak prestatu eta aholkatzen dituzten GGKEak koordinatzea du eginkizun. Era berean, zuzenean aholkatzen ditu ikastetxeak, beharrean badaude; GGKEekin batera, prestakuntza eta programako jarduerak antolatzen ditu, eta esperientziak bere webean zabaltzen ditu, beste gauza batzuen artean.

- **GGKEek** ikastetxeak aholkatu eta laguntzen dituzte, bai eta irakasleak ere, ETCGa lantzeko jarduerak eta baliabideak proposatuta.

GGKEek ezaugarri eta konpromiso hauek bildu behar dituzte:

- Esperientzia ETCG proiektuetan. Gainera, haien ikasmaterialak Baliabideen Katalogoan sarturik egon behar du (CONGDN).
- Prestakuntza eta aholkularitza eskaini behar dituzte, eta irakasleekin elkarlanean aritu behar dute, hezkuntza-proposamen hori ikasgelan aplikatzeko (irizpide orokor gisa, GGKEek ez dituzte jarduerak ikasgelan egiten).
- Hezkuntza-proposamenaren jarraipena egin behar dute ikastetxeetan.
- Instituzio eta GGKEen Koordinakundearekin egiten diren bileretara joan behar dute, bai eta bukaerako topaketara ere.
- **Ikastetxeak.** Irakasleak programaren eragile nagusiak dira. Prestakuntza eta aholkularitza jasotzeaz gain, ETCG proiektuak bultzatzen dituzte ikastetxeak garatze aldera. Hezkuntza-erkidego osoa inplikatu nahi dute eta, era berean, elkartasunezko harremanak sustatu haien ingurunerik hurbilenarekin. Gutxienez, 3 irakasle osaturiko lan taldea sortu behar dute.

B) Prozesua

Eskola Solidarioen prozesua:

1. Urratsa: Ikasgelan lan taldea osatzea, GGKE batek aholkaturik. Izena emateko, Prestakuntza Planaren plataformara jo behar da. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko plataforma bat da Eskola Solidarioak mintegi barnean. Ikastetxeak eskatu behar du izen-ematea.

2. Urratsa: Hasierako Topaketa bat egiten da ikastaroa egituratzeko eta ideiak zein prestakuntza emateko. Bi kanpo-prestakuntza dira, eta irakasle bat edo bi joaten dira ikastetxe bakoitzeko. Halaber, Bukaerako Topaketa egiten da gainerako ikastetxeekin, esperientziak eta prestakuntza trukatzeko, eta horietara ere, irakasle bat edo bi joaten dira ikastetxe bakoitzeko.

3. Urratsa: Aholkularitza Teknikoa eta Laguntza. Aholkularitza Teknikorako prozesuaren bidez, irakasleak lantzea erabaki duen proiektuaren lanketa egiten laguntzen da; halaber, edukiak, metodologiak eta jarduerak zehazten laguntzen da. Aholkularitza, betiere, ikastetxearen errealitatearen eta taldea osatzen duten irakasleen arabera egiten da. Bai aholkularitza, bai GGKEek ETCGn erabiltzen duten ikasmateriala euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzen da.

4. Urratsa: Ikastetxean praktikan jartzea.

Lan hau irakasleei dagokie. Irakasleek jartzen dute abian hezkuntza-proiektua, zuzenean ikasleekin lan eginez.

5. Urratsa: Memoria prestatzea

Sistematizazio eta ebaluazio fasea da. Ikastetxe parte-hartzaileek, izan ere, esperientzia ebaluatzeaz gain, egindako lana era sistematikoan bildu behar dute 5 bat orrialdeko memoria batean. Memoria guztian bildurik, GGKEn Koordinakundeak argitalpen bat egiten du online, esperientzia guztiak laburbiltzeko, dena partekatze eta sozializatze aldera.

6. Urratsa: Mintegia 500€-z hornitua dago mintegiarekin zerikusia duten ekintzetarako eta materialerako. Hori dela eta, ikasturte hasieran aurrekontu bat egin behar da, eta ikasturte bukaeran, berriz, fakturak aurkeztuko dira, ahal bada gastua argazkien bidez azalduta. Memoria aurkezteaz gain, irakasleen Sinadura Orria ere aurkeztuko da, hori ikastetxeko mintegia baita.

C) Metodologia aktiboa, parte-hartzailea eta teknologia berriak txertatuta.

Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea da. Ikaskuntza, berriz, esperientziazkoa eta aurkikuntza bidezkoa; halaber, ekintza sustatzen da. Horiek guztiak oinarritzko elementuak dira, eta aukera ematen dute curriculumaren ikaskuntza ingurunearen egiazko beharrekin lotzeko.

Aldez aurreko ezagutzak kontuan hartuko dituen metodologia baten alde egiten da; funtsean, konstruktibista, kolektiboa, betiere teoria eta praktika, analisi-lana eta entzute aktiboa uztartzen dituen.

Teknologia berriak lehenesten dira. Haien erabilera sustatu eta berariazko tresnak proposatuko dira. Era berean, beste jarduera mota batzuk jotzen dira oso baliagarritzat eta onuragarritzat, hala nola jolasa, antzerkia, etab.

IZENA EMATEKO MODUAK ESKOLA SOLIDARIOAK PROGRAMARAKO

Bi izen-emate mota proposatzen dira:

- Prestakuntza
- Berrikuntza

Modalitateen arteko alderik handiena hauxe da: lehenbiziko hori prestakuntza-orduekin ziurtatzen da. Bigarrena, berriz, berrikuntza-orduekin. 35 ordu irakasleentzat, eta 50 ordu, ikastetxean ari den koordinatzailearentzat.

ESKOLA SOLIDARIOAK PROGRAMAREN BALDINTZAK

1. Ikastetxeak Eskola Solidarioen Hasierako Topaketan parte hartu behar du.
2. Gutxienez 10 orduko aholkularitza eta prestakuntza.
3. Memoria bete eta aurkeztea, bai eta sinadura orria ere.
4. Ikastetxeak Bukaerako Topaketan parte hartu behar du.